

KONTU KONTARI**BIHOTZETAKO ERREGINA**

Itziar Oiz esparru murrizteko pertsonaia zen, hau da, gauza gutxirekin konformatzen zena (egunerokotasunarekin eta bizitzaren gauza soilekin gozaten dituen horietarikoa), guztiok bezalaxe bitxikeriak eduki bazituena eta auzoan bertan ezagutu ahal direnen laguna (Gizon Txikiarena, Gizon Itsusiarena, Txitxirio Beltzarena, Mari Domingi 2-rena edota Masail Etzanaraziak boxeolariarena). Honetaz gain, bere betiko zaletasun arruntak gogoratu nahi nituzke: zinea ikustea edota ile-apaindegira eta al baitariarengana joatea.

Lehenengo puntuari dagokionean, inoiz betetzen ez diren promesak eta desirak aldarrikatzen dituzten karrusel horietariko batera igo eta jira-biraka ibiltzea edo patata frijituak jatea zeuden bere egunerokotasunaren barruan. Ezin produktu interresgarriago irizten zien patata frijituz betetako poltsei. Patata frijitu bakoitzak pergamina zirudien. Eta hortz artean sostengatzearekin batera karraska egin zezaten uzten zien, berariaz edukitzen zituen ahoan mantso-mantso, karraska gora eta karraska behera, horrela uneak nola apurtzen eta arrakalatzeko zihozkion frogatuz. Marrazten zuenean, orduan ere poltsako

patata frijituez oroitzen zen, euren arkitektura aldakorra artistikoki iradokorra baitzizaion.

Bigarren atalari begira, bitxikerien artean koaderno gorrixkan apuntatutako marmar estimagarriak errepasatu zituen, adibidez, jolas moduan “leotardo” eta “leopardo” hitzekin sortutako errimak. Bestaldetik, “abrazar” eta “abrasar” errima gogoko zuen, bizitzak bidali ohi dituen opari edo besarkadak batzuetan zeinen kiskalgarriak diren adierazteko edota “dormir” eta “morir”, askotan lo egitea hilda egon nahi izatearen sinonimoa delako. “Sociedad” eta “suciedad” hitzak ahoskatzen zituen maiz, gizartean dauden interesak eta aurreiritziak (zabor hori) salatzen. Horrelako hitz jokoak egiten zituen. Irudien bidezko elkarketak ere gustatzen zitzaizkion, esate baterako, “euritako tolesgarria / txori tolesgarria” zioenean. Hormekin hitz egiteko joera ere areagotu zitzaion, agian bakardade kontuengatik. Honetaz gain, parkeko bankuetan esertzen zenean, belarria luzatzen zuen, baina ez etxeoandre aspertuek bezalaxe zer entzungo, baizik-eta jendearen murmurioak salbamendu flotagai-luak bezalakoak izaten zitzaizkiolako.

Hirugarren arloari buruz, auzoa eta bere pertsonaiak Oizentzat mundua bera ziren. Han zegoen Gizon Txikia. Txikia zela esaten zioten mespretxuz. Garaieraz txikia zelako zorrozkailluak jandako koloreko arkatza purtzila zela aurpegiratzen zioten iseken artean, paperera zerbait idaztera iristen ez zen arkatza. Jostailu denda batean lan egiten zuelako ere txiki eta ezdeustzat jotzen zuten, gizon baten eskuetan mahai futbolak, panpinak, tren elektrikoak eta horrelakoak edukitzeari ergel irizten baitzioten eta ergel ez ezik, iraingarri ere. Haien ustez benetako gizonek benetako lanpostuak dauzkatenak ziren, adibidez, medikuak, enpresariak eta abar. Gainera, zeharo detaile zalea zen eta, horrela, alozak zituzten prakak jantzen zituen eta presillaz, lepo zerrendaz, ordezkotoiz eta galartzuz josita zihoan, mahai inguruetan eta abarretan azkenaurrekoa izaten zen, ia beti zerbitzu ateetatik sartu-irtenak egiten zituen

eta, nola ez, sekretu aitorrezinez betetako barne poltsikoak zeramatzan. Arrazoi hauengatik ere txikitzat eta ziztrintzat zuten. Gizonago eta atletikoagoa irudikatzeko sorbaldakoak jarri behar zituela esan zioten isekari maiz, baina berak papar-hegalak altxatuz ezetz erantzuten zien. Itziar Oizentzat, ordea, ez zen txikia eta ergela, handia eta burutsua baizik. Izan ere, aldamenean beti zeraman botikinari esker hainbat bizitza salbatu zituen, non eta bankuz eta abokatu bulegoz betetako kale nagusi batzuetan. Bestaldetik, berak ez zuen inoiz txarto eraman txikia izatearen etiketa, Fito edo Pitxitxi bezalako pertsonaia txireneen ondoan egotearen patua eta K-Toño Fradek marraztua izateko ametsa gustatzen zitzaizkiolako.

Gizon Itsusia, beraz, ez zen itsusia. Aizkolari begitarte zeukan (hazpegi luze eta kubistekin), hori besterik ez zen, baina askok edo batzuek begitarte hari arraro eta ez ohizko irizten zioten. Ia delitutzat jo zuten begitarte hura edo bukaezinezko desbideraketatzat eta, gauzak horrela, handik aurrera inoiz ez zioten barkatu aizkolaritasuna. Gizon Txikia ez bezala, Gizon Itsusia konplexuz beteta zegoen. Denboraldi luzeak ematen zituena etxean sartuta eta ispilu hautsi baten aitzinean. Txitxirio Beltzarana (Gaztaina Ustela ere deitua) istripu baten ondorioz burua ilunpean edo eklipsean zeukalako izendatu zuten horrela. Askok beldurrarekin nahasitako mesfidantza agertzen zioten, ilunaldiengatik baino gehiago ilunaldien alde horretatik (edo, berak esaten zuen bezala, izotz beltzeko pistatik) egiak, besterik gabe, egia borobilak igortzen zituelako inolako aurreiritzirik eta lotsarik gabe. Mari Domingi 2 Mari Domingiren ordekoa zelako bataiatu zuten horrela. Gabonetan honek ezin zuenean atera Mari Domingi 2, ohitura zaharrak agintzen duen legez, soineko berriarekin jantzita, berokia lagun eta antzara baten gainean azaltzen zen, menditik etorri berriko Olentzero ikazkina zurezko pottokan eta Basajaun triziklo baten gainean aldamenean zituelarik. Masail Etzanaraziak boxeolariari dago-kionean, masailak bi frontoi pareta bezain lau zituelako dei-

tzen zioten modu horretan. «Masail Etzanaraziak, bai, baina burua zut» esanda dena argi eta garbi uzten zuen.

Zaletasunei begira, Itziar Oiz zine kultura zabal baten jabe zela azpimarratu behar. Azken labealdiko film batzuk gogoratu zituen, *Sabrina* eta *Apartamentua*, biak ala biak Billy Wilder zuzendariarenak, lehenengoa komedia erromantikoa, bigarrena komedia garratza. Sabrinaz gogoratzerakoan, Sabrinak idatzitako gutunak bezalakoak idatzi nahi lituzkeela pentsatu zuen, Sabrinak bezala dantzatu, abestu, seduzitu, Sabrinak bezala frantsesa ahoskatu. *Apartamentua*-ri begira, batez ere, honengatik edo hargatik bizitzan ematen diren bururik eta hankarik gabeko egoera katramilatsuak eta ibilera zein baino zein eroagoak gogoratu zitzaizkion, giltzak eta desgiltzak, ateak eta desateak, pasilloak eta despasilloak zirela-eta. Izan ere, apartamentu hark azkenean egitasmoz eta desegitasmoz, muntaketaz eta desmuntaketaz osatutako maleta zirudien, berak lan egin zuen “Saski-Naski” mertzeria eta opari dendak jostorrazak, kateorrazak, botoiak edota hariengatik ezin askatuzko mataza gertatu zitzaion bezala zenbait unetan.

Adierazi bezala, zinearekin bateratsu, ile-apaindegira eta al-baitariarengana joatea zuen afizio. Ile-apaindegiaz den bezainbategian, hiru hilabetero behin hurbiltzen zen gutxi gorabehera eta beti gustura, *look*-a eta gogo-aldartearen eraberritzeaz gain, ile-apaindegiko giroak koadro abstraktuak pintatzera bultzatzen zuelako, trazu harrigarri-bitxikoak, kolore askotariko eta hondo aienatutakoak eta beste sentsazio batzuen artean almidoizko urarena zeukatenak. Horrelakoak otutzen zitzaizkion berarentzat propio aukeratu eta eskaintzen zioten besaulki berdean.

Albaitariaren kontua luzeagoa zen, batez ere, duela bi egun hara joan zeneko bizipena buruan grabatuta zuelako. Etxean egongelako sofaren bazter batean egoten zen Misisipi katua, eskualde berean bizi zen Lulu Lanuit katua lagun mina ze-

na. Kale katua izanda, konfiantza hartuz gero, jarrera basatiak erakusten zituen. Ile beltz bezain leuna zeukan, begi hori distira-distiratsuak eta zerbait lortu nahi zuenean, lausengu oso ikasiak egiten zekien eta baita betirako errubrikak ere atzapar zorrotz haien bitartez. Baina gozoa eta biguna ere bazen, bere atzaparren arteko kuxinak lekuko. “Misisipi” ahoskatzerakoan, silabak luzatu eta luzatu egiten zirelako ibai infinitua zizelkatzera, arrazoi horregatik bataiatu zuen horrela. Bazirudien Misisipiri ere zinea gustatzen zitzaiola, adi-adi jarraitzen baitzuten pelikulak, baina, hala eta guztiz ere, Itziar Oiz arratsalde batean ohartu zen zerbait gertatzen zitzaiola. Zutik jarrarazi eta atzeko hanka batetik herren zebilen, beraz, al baitariarengana hurreratzea erabaki zuen.

Albaitariaren kontsultaren itzarongelan norbaitek podium moduko batean zegoen aulkia seinatu eta eskaini zion. Zorionekoa sentitu zen Itziar Oiz. Izan ere, gizarte hierarkizatu eta aldrebes hartan Itziar Oizi behin baino gehiagotan tokatu zitzaion zapata garbitzailearena egin, kaletik paseo bat ematera zihoalarik poltsa lurrean utzi, behetik gora begiratu eta eskuila eta oihala hartuta, zapatak ziratzeari ekitea. Espartin aurpegia ere bazeukala esan zioten sarritan trufaka, zapala edota morokilarena. Horregatik albaitariaren detaile horrek emozioz bete zuen.

Itxaronaldia luze samarra izango zela iritzirik (guztitar sei zeuden itxaroten), gozoki bat dastatu eta Misisipi plastikozko kutxatik irtenaraztea erabaki zuen. Eskuila beltz kolorekoa bizkar leunetik igaro, buztana eta belarriak laztandu, begi ertzetan pilatutako bizpahiru makarrak kotoizko makilatxo batez banan-banan erauzi eta uhaleria era laxoan jarrita, hortik zehar ibil zedin utzi zion. Misisipi izaeraz barnekoia zenez, antzeko moduan zeuden hiru katuri bafadak baino gehiago aharrasi nagitsuak ziruditen hiru aire ahokada jaurtiki ondoren, kristalezko mahaitxora egin zuen jauzi eta han zeuden arrosa eta mitxoleta batzuen artean aienatu zen, baina ez zen isildu, handik miau

luzeak igorri baitzuten, boxer baten zaunkekin nahastu zirenak. Itziar Oizek gurutzaketa hura ustiatuz, boxerraren zaunken eta Misisipiren miauen zenbait akats ortografiko apuntatu zituen koaderno gorrixkan eta jarraian, ondoko Yorkshire terrierrarentzat zeuden txirbil nutritiboetatik bizpahiru hartu zituen (ohituta zegoen horrelako gauzak egitera, batez ere dektibe aroan Ezdeus txakurra eduki zuenetik). Dena dela, Yorkshire terrierraren jabeak harriduraz begiratu bazuen ere, ez zion errietarik egin. Gero, burua ezker-eskuin jiratu eta landareetan zein miniparterreetan jarri zuen adiera. Landare haie-tariko bat gorakaria zen eta begirada behetik hasi eta gorantz abiaraziz gero, kiribil asimetriko bezain dinamikoetan galtzen zen eta, are gehiago, ematen zuen une batetik bestera sabaia zulatu eta handik irtengo zela. Ez zuen ukatuko, ikuskizuna apartekoa zen. Landare gorakariaren ondoan plastikozko sagar bat zegoen, antza denez, sagarrik ekologikoa.

Behar baino gehiago denbora-pasa gisara Misisipiri azkazalak moztu zizkion: ur zorrotadatik irtendako zipriztinak ziruditen, indartsuak bezain mamitsuak euren apurrean. Saialdi batean baino gehiagotan aritu behar izan zuen, erpe barneragariak bailiran atzerantz egiten baitzuten Misisipiren atzaparrek modu setatiaz. Zikiratuta bezalaxe sentitzen zen horrelakoetan, autoestimuan zaurituta, behintzat, hori pentsatzen zuen Itziar Oizek Misisipiz horrelako egoeretan ikustean. Azkazal zati batzuk begietan sartu zitzaizkionean, Itziar Oizi negar txikiak irten zitzaizkion, mandarina pipitak bezalakoxeak. Atzaparrak moztutakoan, hankei musu bana eman zien, egindakoengatik barkamen sinbolikoa eskaini nahian edo. Jarraian, 2011ko azaroaren 1etik, hau da, Santu Guztien Egunetik gordetzen zituen santutxoek hezurretatik batzuk eman zizkion, gustura hartu zituenak, zerbaiten eske dauden begiek hezur bigunak daramatzatela diruditen hodeiak ikustean atsedena hartzen duten moduan. Azkenik, biboteak ziratu zizkion zapi batez. Katuak eskerrak emanez, urruma egin eta buruaz kokotsa ferekatu zion.

Azkenean albaitariak kontsulta barrura pasarazi zituen. Misisipi beso artean hartu eta Itziar Oizi Harribitxi loroaz galdetu zion eta Itziar Oizek erantzun zenbat eta zaharrago, orduan eta erretrauzaleago zebilela. Urteak aurrera joanagatik ere, hegoluzera gotorrekoa izaten jarraitzen zuela eta lumen kolore bat ere ez zitzaiola histu eta, gauzak horrela, ortzadarrek berek bekaizkeria eduki beharko lioketela. Albaitariak zeharo artatu zuen Misisipi, giltzurrunak, bihotza eta birrikak ermamiez sakon bezain leun zanpatuz, bular aldean auskultatuz eta belarri zein begi barnealdeak miatuz. Hozka txiki batzuk izan ezik, katua lasai egon zen, batzuetan nagiak atera eta erdi lokartuta. Amaieran albaitariak Misisipiri sasiko masusta batzuk oparitu zizkion.

Etxera bidean zihoala, Misisipi zeraman plastikozko kutxaren euskarri fin bezain estuari heldu zion, kutxa magiko eta baliotsua bailitzan. Itziar Oizek ezer gutxi zeukan: etxe bat, katu bat eta beste bost gauza gehiago. Lanpas asko ezagutu behar izan zituen, eskaileretako azken mailetan sarritan eseri zen, lerroetako azken postuetan egon (loteria eroatera hurreratzaren ia aldi gehienetan), zabaltzen ez ziren ate itxietan txirrri josten aritu zen (etxez etxe garbigarren orrialdeak banatzen eta haietan zegoena azaltzen, adibidez). Pertsianak muturren aitzinean ere askotan itxi zizkioten (lekuetara beti belu heltzeko joera izaten baitzuen). Baina, bestaldetik, jakin bazekien bera etxetik ateratzen zenean, argia argiagoa zela edota ekaitzen osteko ostarteak erabatekoagoak izaten zirela. Eta egun hura horrelakoxea izan zen.

Zinea, Gizon Txikiaren botikina eta Mari Domingi 2-ren antzara bezalako bidaia-lagunekin Itziar Oiz bihotzetako erregina sentitzen zen bizitza honetan egokitu zitzaion esparru laburrean. Baina, batez ere, bost idulkiok (Gizon Itsusiaren frontoia, Txitxirio Beltzaren izotz beltzeko pista, Masail Etzanaraziak boxeolariaren ring-a, ile-apaindegiko besaulki berdea eta albaitariaren kontsultaren itxarongelako podium moduko aul-

kia) erabakigarriak gertatu zitzaizkion bere burua miraberik eta lekaiorik gabeko eta bakardadez betetako bihotzetako erreginatzat jotzeko. Ez zuen gehiagorik nahi, ezta behar ere.

Amaia Iturbide